

# Itzultzaile autonomoen gazi-gozaok mahai gainean: elkarrizketa bat lau ahotsetara

IBAI SARASUA GARCÍA

EIZIEren egoitzan nuen hitzordua lau elkartekiderekin, laurak itzultzaile autonomoak, edo hala ibilitakoak, bakoitza bere erara, bere arloan. Irene Aldasoro Katarain (Idiazabal, 1955), Kike Diez de Ultzurrun (Iruñea, 1962), Ane Garmendia Alberdi (Zumarraga, 1980) eta Ane Garcia Lopez (Hondarribia, 1994). Belaunaldiak, ezberdinak; ezberdinak ere bizipenak, baina denak ala denak beren kasa itzulpengintzaz ogibidea egindakoak.

**IBAI SARASUA:** Noiz, zergatik eta nola hasi zineten itzulpengintzan, eta nolatan egin zineten autonomo?

**IRENE ALDASORO:** Aspaldiko kontuak dira, baina ni itzulpengintzara euskararen bitartez sartu nintzen. Garai hartan, Franco hil ondoren, 1976 inguruan, mundu guztiak pentsatzen zuen euskara ikasi beharko zuela, baita gutxiena espero zenuenak ere. Orduan euskara-irakasle falta zegoen, eta alfabetatze-ikastaroak egin ziren. Nik, nire ikasketa apurrak gaztelaniaz egin nituen, ikastaro horietako bat egin nuen. Gauzarik zoragarriena iruditu zitzaidan ikustea deklinabidearen logika, aditzen paradigma...

Baserritik nentorren ni, hango euskararekin, eta hori ikustean iruditu zitzaidan euskarak ez zuela inongo hizkuntzaren inbidiarik. Halaxe gelditu nintzen, zoratuta. Imaginatuko duzue nolako gogoarekin sartu nintzen orduan euskara irakastera. Ordurako, Parisen umeak zainduz ikasitako frantsesa ere banekien, eta ingelesa, Irlandan egona bainintzen, baina ez hainbeste. Garai hartan hasi zen dena: telebista, Diputazioko itzulpenak eta abar, erakundeek euskara-beharra zutelako. Lagun batek bultzatuta, proba bat egin nuen: katuei buruzko lagin bat itzuli, eta garai hartan Eresoinka eta gero Irusoin izan zenera bidali nuen. Hartu zidaten lagina, ontzat eman zuten, sobra ere, eta han

hasi nintzen itzultzen. Pelikulak ez zizkidaten asko ematen; baina marrazki bizidun batzuk, dokumental batzuk eta abar eginez, horrelako kontuetan hasi nintzen itzultzen. EIZIE sortu zen orduan. Fundatzaileek ere behar zuten jendea, eta Eresoinkako guztiak ere sartu gintuzten. Hori izan zen nire hasiera, euskaratik.

**KIKE DIEZ DE ULTZURRUN:** Ni, hasi nintzenez, euskarazko hedabide batean ari nintzen lanean, Iruñean. Anaia, Periko, pelikulak euskaratzen aritzen zen, eta, orduan, tarteka, ez filmak-eta, baina bertzelako lanak ailegatzen zitzaizkionean, niri ematen zizkidan, eta haren ondoan ikasi nuen. Nik banuen nire lana hedabide hartan, soldatapekoa, baina gero eta gehiago egiten nituen halako lanak. Kobratzeko, alta hartzen nuen autonomoetan, urtean bi edo hiru hilabeteetan. Gero, jada bigarren alaba sortu zenean, duela 22 urte, eszedentzia bat eskatu nuen, erabakita itzulpengintzan bete-betean aritzea, autonomo. Hortik aitzinera autonomo segitu nuen, enpresa batentzat, baina autonomo. Beranduago eskaini zidaten finko egitea ere, baina esan zidaten: «Begiratu lan-hitzarmen hau, bulegariena». Begiratu nuen Interneten, eta hitzarmen horrekin oso gutxi ordaintzen zen. Ez nuen onartu, eta autonomo jarraitu nuen. Gero, handik atera eta ene kasa aritu nintzen.

**ANE GARMENDIA:** Nik Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasi nuen, Castellón, eta, ikasketak egiten ari nintzela, bagenuen ikasgai bat «Ikus-entzunezko Itzulpengintza» izena zuena eta bidea ematen ziguna gai horretan pixka bat sakontzeko. Praktikak Irusoinen egin nituen. Egia da gero

bizitzak beste alde batzuetatik eraman ninduela, Gipuzkoako Aldundiko beka eman baitzidaten, eta hortik hasi nintzen administrazio-itzulpenak eta itzulpen juridikoak egiten itzulpen-agentzia batentzat. Dena den, ikus-entzunezkoen harra neukan barruan, eta master bat egin nuen, Bartzelonako Unibertsitatean, online. Hor hasi nintzen berriro ikus-entzunezkoen alorrean, bikoizketa-etxeentzat. Hasieran hainbat itzulpen- mota uztartzen hasi nintzen, baina zazpi-zortzi urte dira ikus-entzunezkoak bakarrik egiten ditudala. Bikoizketa egiten dut, azpidatziak eta denetarik: filmak, telesailak eta abar. Autonomoa izan naiz ia hasieratik, itzulpen-agentzia batentzat lanean bi urte eman nituen arren, hortik aurrera autonomo egin bainintzen.

**ANE GARCIA:** Nik ere Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua ikasi nuen, Gasteizen, eta amaitu eta gero autonomo jarri nintzen, segidan, baina hiru hilabete besterik ez nuen iraun. Bezero batzuekin praktikak egin nituen, baina gogoratzen naiz hiru zentimo ordaintzen zidatela, berria nintzelako; feedbackik eman gabe, gainera. Berehala, Lurdes Auzmendiren bidez Guggenheimen lortu nuen lana, itzultzaile, eta bi urtez egon nintzen han. Batzuetan damutzen naiz, baina erabaki nuen uztea, ordu gehiegi zelako eta oso lotua zelako. Gaizki ohitzen gara autonomook. Utzi nuen, eta autonomo izatera itzuli nintzen, ibiltzen naizelako gidoiak egiten, musikaren munduan, emanaldien munduan, eta posible nulako hiru epigrafetan izena emanda egotea eta gauza ezberdinak egitea. Beraz, itzulpengintza izan da niretzat oinarria, eta handik gora beste

gauzak etorri dira. Horrexegatik, batzuetan sentitzen dut ez naizela itzultzaile betea. Batzuetan gehiegi hartzen dut, baina oinarria hau da, itzulpena, egia da. Humanitate-gaietan espezializatu nintzen, eta, oraindik agentziekin lotu ez naizen arren, uste dut aurki jo beharko dudala hortik.

**IBAI:** Zer lan mota egin izan duzue? Espezializatu zarete ezertan?

**IRENE:** Hasieratik, zegoena egiten nuen, harrapatzen nuena, ematen zidatena. Oso heterogeneoa izan da, ez naiz ezertan espezializatu. Probatu dut ikus-entzunezkoak itzultzea, aktak, musika-eskolako gauzak, aparejadoreen ingurukoak, eskola-liburu batzuk ere bai... Oso gauza ezberdinak itzuli ditut. Gustura, denak. Dagoena probatzen duzu, handik eta hemendik. Nork esango zidan legeak ere itzuliko nituenik, ikusi ere ez nituelako egin nahi, ez bainuen Administrazioio hizkera gustuko, baina legeak ere bai! Oso uzkur sartu nintzen, pentsatuz ez nekiela ezer —nola egingo dut nik hori!—, baina, mekanika ikusten duzunean, zirrikitu batetik beste mundu bat ikusten duzunean, interesgarria da hori ere, neurri batean. Izan ere, autonomoak behar du, nire iritziz, lan-iturria. Oso bizia eta ona baldin bazara, oso bizkorra eta ona, eta, iturria baduzu, fenomeno, ondo bizi zaitezke, baina ez da nire kasua. Ni motela naiz, ona edo txarra, ez dakit, baina motela, eta horrek alde txarrak eta onak dauzka. Dena den, gusturen egin dudana itzulpen literarioa izan da.

**KIKE:** Nik ere denetik egin izan dut, baina literatura eta ikus-entzunezkoak, ez. Garai hartan, ohiko gaiak ziren Nafarroako ohi-

turak, Nafarroako txokoak, historia-kontu batzuk ere bai, baina oro har publiko zabalarentzako kontuak ziren. Horrelakoak, franko. Gero, denetarik. Udaletarako ere bai, ez osoko bilkuretako aktak, baizik eta bestelakoak, argitalpenak eta halakoak, edo tokiko aldizkariak, artikulatu batzuk eta gisa horretako gauzak. Ene kasa jarri nintzenean, Nafarroan oso-oso gutxi ginen autonomo genbiltzanak, eta ez dakit ez ote garen gero eta gutxiago. Itzultzaile beharrean daude Administrazioan eta toki guztietan. Komeni da bezero-iturri handia edukitzea eta era askotako bezeroak, iturri batzuk itxiko baitira eta beste batzuk ireki. Ni ezaguna nintzen irrati batean euskaraz ari nintzelako eta euskalgintzan nembilelako, eta bezeroak batez ere nafarrak ziren. Tarteka administrazio-testu bat edo beste ere heltzen zait, administrazioak lanez gainezka daudenean, tarteka kanpora ateratzen baitute zerbait. Bestela, gehiena enpresa pribatuetatik jaso izan dut: dokumentuak, webguneak eta halakoak, gisa horretan aritu naiz. Ikasliburuen aldia etortzen denean ere enpresaren batetik deitzen dute: «Libre zaude hau egiteko?». Beraz, tokatzen dena. Dena den, arauak, legeak eta horrelakoak ez ditut egiten, ez dira iristen. Eta publizitate-esaldiak eta horrelakoak, hitz-jokoak eta tankerakoak, pentsatu ere ez. Horrelakorik bidali izan didatenean, esan izan diet jatorrizko esaldia pentsatzeko erabili dituzten bi aste horiek beharko genituzkeela guk ere hori itzultzeko, eta arrisku-tua da, gainera.

**ANE GARMENDIA:** Nik ikus-entzunezkoetan egiten dut, gehienbat. Gaztetxoentzako literaturako zer edo zer egin izan dut, momen-

tu zehatzen batean, baina, orain ia guztia ikus-entzunezkoetan egiten dudanez, antzerkia ere egin dut, eta kantuak egokitu izan ditut.

**ANE GARCIA:** Nik gustukoena dudana da saiakera itzultzea, baina datorrena itzultzen dut. Heldu izan diet, bestela, askotariko proiektu luzeei, berdin dit legeak-eta izatea, baina ezin dut berehalako epeekin. «Hau biharko» eta abar. Hori asko kostatzen zait.

**IBAI:** Itzulpenak egiteko, ordea, bezeroak lortu beharra dago. Nolako bezeroak izan dituzue? Zuzenean bezeroarekin aritu zarete ala bitartekariarentzat egin duzue lan?

**IRENE:** Zuzeneko bezeroekin aritu naiz ni gehienbat. Agentziekin eta epe horiekin lan egin baino nahiago dut etxea garbitzen lanean aritu, baina batzuek behar dute estutasun hori. Nik, aldiz, ez. Nik bakean bizi nahi dut, lasai. Nahiago dut beste zerbaitegin horren estu ibili baino.

**ANE GARCIA:** Esango nuke gazteentzat hori dela lehenengo bidea gaur egun. Ez digute erakusten nola egin harremana bezeroekin; orduan, zuzenean jotzen duzu agentzietara, eta agentziek inposatzen dizkizute tarifak. Ez duzu harreman pertsonalik egiten bezeroekin.

**IRENE:** Hori aldatu egin da. Alderdi onak edukiko ditu, baina, nire ustez, behintzat, okerrera joan da. Ez dago errespeturik. Bost axola. «Hau horrela da; nahi baduzu, hartu, eta, bestela, hor konpon».

**KIKE:** Niri agentziek noizbehinka zerbaite bidaltzen didate. Batzuetan ikusten dute

zure izena Nor da Nor-en, eta eskaintzen dizkizute tarifa batzuk. Gutxi aritzen naiz ni horrela: ikasliburuak egiten ditut noizbehinka, baina ez besterik.

**IBAI:** Bezeroak bilatu egin behar izan dituzue? Zuek aritu zarete bezero bila ala haiek jo dute zuengana?

**KIKE:** Niri ez zait tokatu bilatu behar izatea. Gero eta ezagunagoa zara, eta Nafarroan jendeak badaki jendea non dabilen. Bezero askok Nafarroako Gobernura jotzen dute, hark esaten die ez dutela horrelakorik egiten, nor dabilen esaten die, eta horrelaxe jotzen dute askotan zugana.

**ANE GARMENDIA:** Karrera bukatu nuenean Gipuzkoako Foru Aldundiak beka eman zidanez, hark gomendatuta hasi nuen bidea. Ziur nekienean ikus-entzunezkoetan lan egin nahi nuela, hor bai, bidali behar izan nituen curriculumak hainbat enpresatara, baina uste dut hor izan zela bilaketa bakarra. Gero eta gehiago heltzen dira eskaintzak curriculumak, lagina eta horrelako ezer eskatu gabe, gainera. Askori berdin dio nork egiten duen, eta horrela ikusten dira ikusten direnak ere.

**IRENE:** Hori orain horrela egiten da, baina gure garaian okurritu ere ez zitzaigun egiten horrela ibiltzea! Niri curriculumak eskatu izan dizkirate, agertu behar zutelako dirulaguntzak eskatzeko eta abar, baina nik neuk lana bilatzeko curriculumak banatzea, burutik pasatu ere ez. Neronek bilatu ditudan bakarrak lehiaketak izan dira. Beno, hasierahasierakoa bilatu nuen, bai, Eresoinkakoa,

baina, bestela, ezagunen bidez lortu ditut ia denak.

**ANE GARCIA:** Nik bidali behar izan ditut curriculumak, bai. Proiektu handien artean izua sartzen zait eta lan bila aritzen naiz. Ezagun itzultzaileengana jo izan dut, lan gehiegirekin ari baziren ere, baina agentzietan sartzea eromena iruditu izan zait. Berehala behar izaten dute itzulpena, eta beldurra ematen dit eskari-bonbardaketak. Dena den, nire sentsazioa da batzuei berdin zaiela curriculumak. Gainera, askotan ez dago tarterik tarifak negoziatzeko, lanbolumen handia agian bai, baina kobratu beharko nukeenaren bi heren kobratzen; eta, gainera, ez dizute ezer zor. Liburu bat eman zidaten iaz, itzultzeko; egileak ez zuen bukatu, eta urte erdiko lanik gabe geratu nintzen, bat-batean. Ziurrenik, tratu hori bezeroarekin zuzenean egin izan banu, ezberdina izango zen. Egun batetik bestera ezer gabe geldu zaitezke.

**IBAI:** Bezero eta eskari guztiak ez dira berdinak, baina. Tarifak, epeak eta baldintzak asko alda daitezke batetik bestera? Nola moldatu izan zarete horiek negoziatzen?

**IRENE:** Ikusten duzue nire kontuak noizkoak diren. Orain dela bi urte erretiratu nintzen, baina bere garaian lagungarri zitzaizkidan niri EIZIEk argitaratu zituen tarifak. Batez ere, lan solteak ematen zizkizutenean jakiteko zenbat kobra zenezakeen. Gainerakoan, esaten zidatena onartzen nuen beti: «Hainbeste dago; nahi duzu?». Gehienetan, hori. Azken urteetako liburuak-eta horrelaxe egin ditut. Oso gutxitan edo oso itzulpen solte eta partikularretan jarri izan ditut nik

tarifak. Gehienetan jarrita zegoen. Epeak ere ematen zizkidaten, baina batzuetan nik ezartzen nituen. Nik ere jarri izan dut epea batzuetan. Besteek beti edukitzen dute epe bat, liburuek ere bai; batzuk malguagoak izan dira, zorionez. Zortea izan dut epea luzatzeko ere. Horrela izan ez balitz ezingo nintzkeen onartu lan batzuk. Ez. Ni lasai bizi naiz alde horretatik; lasaiegi, beharbada, ez baitzait gustatzen fabrika bezala lan egitea. Estutasunik ez. Dirua, gutxi. Bakarrik bizi behar izan banu, ezingo nukeen etxea, telefonoa, jana eta abar ordaindu. Denbora luzean pisukideekin bizi izan nintzen, eta, haiei esker, gastuak banatuta, moldatzen nintzen. Gero, senarrari esker. Ni ezingo nintzatekeen bizi itzulpenaz bakarrik. Izan behar duzu ona eta bizkorra, eta badago jendea lan asko egiten duena, eta ondo, baina ez da nire kasua. Nik behar dut denbora, nolabaiteko autonomia; autonomoa, bai, baina autonomiaz, erabakitzeko bai ala ez. Zigorpean, eguna joan eta eguna etorri, fabrika bateko katean bezala, nik ezin dut horrela lan egin. Noski, ez dut oporrik egiten eta ez naiz joaten asteburuero ez dakit nora. Modu xumean bizi naiz, baina estutu gabe.

**KIKE:** 2008an krisiak jo zuenetik, tarifak ez dira batere igo. Are gehiago, jaitsi egin dira. Duela 15-16 urte tarifa batzuk zeuden, eta, oro har, prezio horiek daude indarrean...

**ANE GARMENDIA:** Ikus-entzunezkoetan, apur bat ezberdina da kontua. Zenbatzeko modu ezberdinak daude; bikoizketarako, minutuko egiten da orain, baina, lehen, bobinaka, hau da, hamar minutuka. Orain, ia dena doa edo azpidatzika edo minutuka, merkeago suertatzen delako. Nik denetarik

daukat. Bezero berri gehienak azpidatzieta-koak dira, euskarazko azpidatziak boladan daudelako eta denerako nahi dituztelako. Gehienetan nik jarri dut tarifa, baina ez beti; izan ere, bezero bakoitza mundu bat da. Batzuetan jar dezakezu tarifa eta beste batzuetan ez.

**ANE GARCIA:** Gu karreratik inolako erreferentziarik gabe atera ginen. Badakit norbait etorri zela hitzaldi bat ematera eta esan zigula bost zentimotik behera ez onartzeko ezer, baina lan-merkatura atera eta hiru zentimo eskaintzen zizkiguten. Niri kostatu egin zait tarifa duinak lortzea. Tarifak lurretik daude, eta borroka egin behar izan dugu, hasiberriez baliatzen baitira zenbait bezero, gutxiago ordaintzeko. Gainera, gehienek ez dute lana askorik berrikusten.

**ANE GARMENDIA:** Hala ere, nahiz eta hasiberriak izan, ikasketa batzuk bagenituen; lau urte generamatzan ikasten, eta gradu bat edo lizentziatura bat geneukan. Horrek zer-baitetarako balio behar du. Castellóko Unibertsitatean, Ikus-entzunezko Itzulpeneko irakasleak erakutsi zigun oso ondo prestatuta atera ginela, lan ona egiten genuela eta gure lana ez genuela gutxietsi behar. Erakutsi behar genuen azterketak gaingitu genuela, balio genuela, eta indar horrekin aurrera jarraitu behar genuela. Niri garunean sartuta gelditu zitzaidan.

**IBAI:** Itzultze hutsaz gain, bestelako lanak ere egin behar izango zenituzten itzultzaile autonomo jardun bitartean, ezta? Nolakoak izan dira?

**IRENE:** Zaintza-lanak bateratu behar izan ditut nik itzulpenarekin, gehienbat.

**KIKE:** Gero, zuk kudeatu behar dituzu beste zenbait gauza. BEZa, beste hau, beste hori. Nik aholkularien esku utzi nuen, eta kito, ez bainaiz batere trebea.

**ANE GARMENDIA:** Nik sartuko nuke mezuei erantzuten pasatzen duzun denbora, aurrekontuak egiten pasatzen duzuna, fakturak egiten ematen duzuna... Hasieran beti nengoen adi, mugikorraren zain, baina, bezerorik faltan ez dudanetik, ikasi dut kanpoan nagoenean kanpoan nagoela, eta etengabe konektatuta ez egoten, bestela ez dago gelditzerik.

**ANE GARCIA:** Bai. Hasieran, amen esaten badizute, amen.

**IBAI:** Uste duzue itzultzaile autonomo ibilita erretiro duina posible dela?

**IRENE:** Hor faktore asko dago, zenbat urte eman dituzun, zenbat kotizatu duzun... Urte asko eman badituzu eta ez baduzu gutxienekoa kotizatu, agian bai. Oso gutxi kotizatu dugunoi, miseria bat gelditzen zaigu. Batzuek, urte batzuetan ondo irabazi, eta gehiago kotizatu dute.

**ANE GARCIA:** Txukun kotizatu ahal izateko, ordea, sekulako fakturazioa behar duzu...

**IRENE:** Lehen esan dudana. Behar duzu lan asko egin eta ona eta azkarra izan. Urte askoan.

**KIKE:** Hego Euskal Herrian, lehen, minimoa kotizatzen zen eta azken hamar urteetan igotzen zen; orain, azken hogeita bost



urteak erabiltzen dituzte kalkulua egiteko, eta hemendik aurrera ez dakit zer izango den. Autonomoek horixe egiten zuten, azken txanpan ahalik eta gehienara igo, eta aski zen erretiro duina izateko.

**IBAI:** Zer harreman izan duzue beste itzultzaile autonomoekin? Lehiakidetzat izan dituzue? Laguntzailetzat?

**IRENE:** Beste autonomoekin, EIZIEn bueltan aritzen ginen gu. Beharra bagenuen, gainera, ez zegoelako ikasketarik-eta, eta elkarrengandik ikasten genuen. Gure garaian, bai, elkarri laguntzen genion.

**KIKE:** Nik ere izan ditut laguntzaileak, zailantzak argitzeko-eta, Iruñean. ItzuLen galdera bota aurretik, elkar lagundu izan dugu. Hala ere, duela hamar urte Nafarroan bazen autonomo batzuk, baina dagoeneko ia denak administrazio publikoetan edo irakasle dabilta.

**ANE GARMENDIA:** Ni masterra bukatzeaz nengoela, ATRAE sortu zuten, ikusentzunezkoen itzultzaile eta egokitzaileen elkarte, eta han egon nintzen sorreran. Hari esker gauza pila bat lortu dira, lehen ez geneuzkanak; adibidez, egile-eskubideak. Zuzendariak bazituzten, egokitzeagatik, baina itzultzaileoi ez zizkiguten aitortzen. Lortu genituen batez ere fikziorako, azpizatziarako eta egokitzerako. Niri horrek, adibidez, balio izan dit batera ere borroka egiteko.

**ANE GARCIA:** Nik izan dut beste itzultzaile autonomo batzuen laguntza, bai, baina lehen bulegoa Usurbilen nuen, Kabiienen. Han autonomoak ziren denak, nahiz eta ez

izan itzultzaileak, eta hori sekulako babesaren; hain zuzen, autonomoek askotan bakarrik gaudelako. Oso garrantzitsua da alboan jendea izatea babesaren ematen, eta, itzultzaileak badira, hobe.

**ANE GARMENDIA:** Lana bideratzeko ere bai. Zerbait iristen bazait eta hartu ezin badut, haiei bidaltzen diet.

**KIKE:** Ni EIZIEn bazkide-tuta nago, eta Espainiako Estatuko beste elkarte batzuetako kidea ere banaiz, eta horrek ere baditu abantailak. Elkar batzeaz, prestakuntzaz, babesaz eta abarrez gain, beste kontu txiki asko ere badago: begira betaurrekoen, dentistaren eta halakoen dirulaguntzak, CEDROrenak!

**IBAI:** Itzultzaile autonomo izateak eskatzen du, hortaz, borrokan aritu beharra. Zein da, orduan, motibazio nagusia?

**IRENE:** Plazera, batzuentzat. Niri, literatura itzultzen ari naizenean, beste guztiak bost axola dit.

**KIKE:** Batzuetan, gaia zein den ere... Nik literaturarik ez dut egiten, baina gai batzuk oso ongi ezagutzen ditut, askatasun gehiago dut, eta gozamen hutsa da halakoekin aritzea. Nik uste dut bizitzeko adina ematen duela autonomo gisa itzultzeak. Gainean egon behar duzu, lanerako prest, baina zure lana da. Hori hala da. Gainean egon behar duzu. Erne, beti.

**ANE GARMENDIA:** Niretzat ere, askatasuna eta malgutasuna dira abantailarik handienak. Urteekin ikasten duzu ordutegi bat ezartzen. Esaterako, nik asteburuetan ez dut lan egiten, eta, egiten badut, astelehena eta

astearte jai hartuko ditut. Diziplina eskatzen du, eta hori da irakasten ez diguten beste gauza bat, funtsezkoa iruditzen zaidana. Deskonektatzen ere ikasi egin behar da, lan egitea bezain garrantzitsua baita lan egiteari noiz utzi jakitea.

**IRENE:** Ni ez naiz izan diziplinatua, baina, egia esan, komeni da. Ez da hain erraza, ordea, deskonektatzea; zer itzultzen ari zaren. Adibidez, literatura itzultzen ari bazara, ez duzu deskonektatzen.

**ANE GARMENDIA:** Eta ikus-entzunezkoekin berdin: hitz-jokoekin, txisteeekin, errimekin... Onena da blokeatzen zarenean aurkitzea zerk laguntzen dizun deskonektatzen, guztiz ez bada ere: mendira joatea, dutxa bat hartzea eta abar. Ni goizeko lauretan esnatu izan naiz errima bat otu zaidalako; hainbeste da nire obsesioa. Hain zuzen, mesanotxean koaderno bat daukat, badaezpada.

**ANE GARCIA:** Nik, adibidez, motibazioa lortzen dut sormenak ematen dizun horrekin: hizkuntzaren inguruko jakintza handia, eta testuetan sartzeko modu bat asko gustatzen zaidana. Ez dut inoiz neure burua oso itzultzaile fintzat jo, dena den; ez naiz gehiegi obsesionatzen, asko itzultzen dut bulkadaz

eta ez naiz errepassoaren oso zalea, ikasi behar izan dudan arren. Literatura itzultzean, gainera, pentsatzen duzu zure zerbait hor ere badoala, itzulpenean.

**IBAI:** Beraz, zer da itzultzaile autonomo izatearen onena?

**ANE GARCIA:** Askotan oso lan bakartia da, eta hori du txarrena, baina, niretzat, onena, beste epigrafe batzuekin eta, hortaz, oso gogoko ditudan beste lan batzuekin bateratu dezakedala.

**ANE GARMENDIA:** Nik inoiz ez dut pentsatu ere egin soldatapeko lana egitea. Gustuko dut etxean lan egitea, diziplinak asko lagundu dit, eta orain oso ondo moldatzen naiz, badaukadalako nire errutina. Alde txarrekin eta onekin, baina ez nuke aldatuko.

**KIKE:** Ez nuke inola ere aldatuko beste batzuentzat soldatapean aritzeko, ez orain, ezta duela hamabi urte ere. Nik antolatzen dut nire ordutegia; badakit asteburu batzuetan hor egonen naizela, baina gero behar bada aste tartean izanen dut aukera mendira joateko.

**IRENE:** Niretzat, itzultzea, lanbiderik politena ez bada, politenetakoa izango da.